EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA · DEPARTAMENTO DE SALUD

# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA

# (2018-2021)

## Osasun Saila

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirila

# AURKIBIDEA


Aurkezpena…… 3

1.- Hitzaurrea…… 4

1.1.- Aurrekariak…… 4

1.2.- Lanketa-prozesua…… 5

1.3.- Egitekoak, jardun-arloak eta egitura…… 5

1.4.- Oinarri programatikoak…… 7

2.- Gobernu-programa, XI. Legealdia (2016-2020)…… 8

3.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana…… 12

3.1.- Kontu orokorrak…… 12

3.2.- Gobernu onerako programa eta neurriak…… 14

3.3.- Berdintasun-alorrean esku hartzeko ardatzak…… 20

4.- Osasun Sailaren plangintza estrategikoa…… 30

4.1.- Aurreko planaren (2014-2016 + 2017) diagnostiko-datu nagusiak…… 30

4.1.1.- Gobernu ona…… 30

4.1.2.- Berdintasun-alorrean esku hartzeko ardatzak…… 38

4.2.- Helburu estrategikoak…… 45

5.- Plana kudeatzeko sistema…… 55

5.1.- Urteko planak berdintasunaren alorrean…… 55

5.2.- Berdintasunerako egiturak…… 56

5.3.- Segimendu-sistema…… 57

5.4.- Komunikazio-sistema…… 58

5.5.- Aurrekontu-sistema…… 61

Eranskinak…… 62

I. eranskina: Urte izaerako plan-eredua…… 63

II. eranskina: Berdintasunerako urteko planari buruzko informazioa emateko laburpen-fitxa eredua…… 65

III. eranskina: Planaren betetze-mailari buruzko segimenduaren laburpen-fitxa eredua…… 68

IV. eranskina: Osasun Sailak XI. Legealdirako jarriak dituen lehentasunen tarteko segimenduaren fitxa-eredua…… 70

V. eranskina: Osasun Sailak XI. Legealdirako jarriak dituen lehentasunen bukaerako segimenduaren fitxa-eredua…… 74

# AURKEZPENA

Iñigo Urkullu lehendakaria buru duen Jaurlaritzaren ezaugarri eta ekintza nagusietako bat gizonen eta emakumeen berdintasuna lortzeko borroka izan da. Konpromiso hori gizarte aske, bidezko eta zuzenagoa lortzeko helburuarekin aurrera egiten jarraitzeko uste sendoetan eta borondate irmoan oinarritzen da.

Administrazio publiko gisa, apustu horretan gure eginbehar legala eta etikoa da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeko neurri zehatzak gauzatzea. Horrenbestez, berdintasunerako planak oso erreminta baliagarria dira gaur egun, esku-hartze publiko koordinatu, koherente eta eraginkorra ahalbidetzeko. Gainera, erreminta horrek aukera ematen du garatu diren politikak ebaluatzeko, eta ez bakarrik horien egokitasuna frogatzeko, baizik eta baita ere euskal herritarren aurrean kontu emateko, bereizgarri ditugun gardentasun-politiken eta gobernu onaren politiken ildotik.

Osasun Sailaren Berdintasunerako Plan hau, orain arte egin den laugarrena, horren adibide ezin hobea da. Bertan jasotzen dira Sailaren mendeko zuzendaritza, elkarte eta erakunde publiko guztiek XI. Legealdi honetan zehar gauzatzea hitzeman dituzten helburu estrategikoak.

Osasun Sailak beharrezkoak diren giza baliabideak, teknikoak eta ekonomikoak bideratu ditu horretara, kide guztiak horretan ahaleginduta. Gainerako sail eta euskal erakunde guztiekin harmonian jardun gara, eta helburu komun hori errealitate egiteko helburuarekin, hau da, Euskadi 2020 Gobernu Programan jasotakoari jarraikiz, Euskadi genero-berdintasunaren esparruan Europako herrialde aurreratuenetako bat izatea. Eta, horrenbestez, moderno, bidezko eta askeenetako bat.

Fátima Ansotegi Elordi
Administrazio eta finantzaketa sanitarioko sailburuordea

# 1.- HITZAURREA

Osasun Sailaren emakumeen eta gizonen berdintasunerako Plana XI. Legealdian sail honek berdintasunaren alorrean sustatuko dituen politiken gidalerroak biltzen dituen esparru-agiria da.

Aipatutako agiriarekin, Osasun Sailak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen aginduari erantzuten dio; izan ere, hau xedatzen du aipatu legearen 15. artikuluak:

*1.- Legegintzaldi bakoitzean, Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onetsi behar du. Plan horretan, hain zuzen, euskal herri-aginteek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak orientatzeko jarraibideak eta gidalerroak modu koordinatu eta orokorrean jasoko dira. Plan hori egiteko orduan, euskal herri-administrazio enparauei parte hartzeko aukera eman behar die Eusko Jaurlaritzak.*

*2.- Aurreko paragrafoan aipatutako plan orokorraren jarraibideak eta gidalerroak garatzeari dagokionez, Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere planak edo jarduketa-programak egingo ditu.*

Plan orokor hori Jaurlaritzaren Batzordeak 2018ko ekainaren 19an onartu zuen VII. Plana da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15.1 artikulua betez.

## 1.1.- Aurrekariak

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Planak 3 plan izan ditu aurretik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-arloan:

| Osasun Sailaren berdintasun-planak | Indarraldia |
|---|---|
| Osasun Sailaren berdintasun-politikaren dokumentu programatikoa | 2007 - 2009 |
| Sailaren dokumentu programatikoa emakumeen eta gizonen berdintasunerako. Osasun eta Kontsumo Saila. IX. legealdia | 2010 - 2013 |
| Sailaren dokumentu programatikoa emakumeen eta gizonen berdintasunerako. Osasun Saila. X. Legealdia | 2014 - 2016 |

Plangintza-dokumentu hau ez da aurrekoak bezalakoa, ez baititu barne hartzen Kontsumobideren eta Osakidetzaren estrategiak eta ekintzak. Kontsumobide Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailean kokatuta dago gaur egun. Eta Osakidetza Berdintasunerako Plan propioa egiten ari da.

## 1.2.- Lanketa-prozesua

Plangintza hau egiteko eta jarduteko estrategiak prestatzeko, generoen arteko desparekotasunen gaineko jakintza baliatu da eta berdintasun-politiken ezarpenean egindako ibilbideari erreparatu zaio. Hortik abiatuta, plangintzarako partaidetza-prozesu bat aktibatu da eta, horretan, saileko zuzendaritza guztiek parte hartu dute, baita berdintasunerako neurriak sustatzen parte hartzen duten erakunde atxikiek ere.

Partaidetza-prozesu hori 2018ko ekainaren hasieran jarri zen abian, eta, berriki, 2019ko martxoaren erdialdean, bukatu da.

## 1.3.- Egitekoak, jardun-arloak eta egitura

24/2016 Dekretuak, azaroaren 26koak, Lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/11/1605038e.shtml, honako egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio Osasun Sailari bere 12. artikuluan:

| |
|---|
| **Osasun publikoa eta elikadura-higienea** |
| **Zaintza epidemiologikoa** |
| **Osasun-plangintza eta -antolamendua** |
| **Droga-mendekotasunak** |
| **Farmazia-antolamendua** |
| **Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera** |

Honako hau da Osasun Sailaren egitura organiko eta funtzionala. Egitura hori 80/2017 Dekretuak, apirilaren 11koak, finkatutako da. http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2017/04/1701966e.pdf

**A) Organo zentralak**

**a) Osasun sailburua**

**a.1.- Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza**

**b) Osasun Sailburuordetza**

**b.1.- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**

**b.2.- Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza**

**b.3.- Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritza**

**c) Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko Sailburuordetza**

**c.1.- Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza**

**c.2.- Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritza**

**c.3.- Farmazia Zuzendaritza**

**B) Lurralde-organoak: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak**

**C) Osasun Sailaren mende edo berari atxikita dauden erakundeak: OSAKIDETZA, Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitariorako Euskal Fundazioa (BIOEF) eta OSATEK, S.A.**

**D) Osasun Sailari atxikita dauden kide anitzeko organoak**

## 1.4.- Oinarri programatikoak

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan hau idazteko orduan, honako hauek hartu ditu kontuan Osasun Sailak:

a) Osasun Sailak hartutako konpromisoak, XI. Legealdiako (2016-2020) Gobernu-programan jasotakoak (Ikus horiek honako plan honen 2. kapituluan).

b) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planak, 2018ko ekainaren 19ko Gobernu-kontseiluak onartutakoak, finkatutako kontuak eta horien artean, bereziki, gobernu onari dagozkion programak eta neurriak eta berdintasun-alorrean esku hartzeko ardatzak (Ikus aurreko horien zehaztapena honako plan honen 3. Kapituluan).

c) 2018ko uztailaren 3an, Osasun Sailak Berdintasunerako Sailarteko Batzordean aukeztutako berdintasun-lehentasunak: gobernu onari lotutako lehentasun komunak; arlokako lehentasunak (Osasun Sailarenak eta OSAKIDETZArenak). *Osasun Sailaren lehentasunak XI. legealdirako* izena daraman txostena ikusgai dago.

## 2.- GOBERNU PROGRAMA, XI. LEGEALDIRAKOA (2016-2020)

Eusko Jaurlaritzaren XI. Legealdirako Gobernu Programak 4 zutabe, 15 helburu estrategiko, 15 plan estrategiko, 10 ardatz estrategiko, 175 konpromiso eta 650 ekimen biltzen ditu.

Hamabost helburu estrategiko horien artean, 13 zenbakia daramanak, honako hau dio: Eusko Jaurlaritzak Euskadi Europako lehenengo 4 herrien artean jarri nahi duela genero-berdintasunean. Europar Batasuneko berdintasun-indizearen arabera, Euskadik 1etik 100erako eskalan 69,3 puntu ditu. Horrek aurreko urteetan jasotako puntuazioak hobera egin duela adierazten du: zera adierazten du: . 2010ean, 68,8 puntu; 2012an, 69,1 puntu (EUSTAT, 2018ko apirila).

Gobernu Programan azaltzen den moduan, Osasun Sailak 26 konpromiso hartu ditu. Konpromiso horiek, esandako Gobernu Programako II. oinarriko (“Giza garapena, gizarteratzea, berdintasuna eta kalitatezko zerbitzu publikoak”) “.1. ardatzean (“Osasun-eskubide unibertsala”) txertatuta daude.

Honatx, Osasun Sailaren 26 konpromiso horiek:

| | |
|---|---|
| 64. konpromisoa | Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu |
| 65. konpromisoa | Itxarote-zerrendak ezarritako ratioen azpitik mantendu |
| 66. konpromisoa | Osasunaren zainketan pertsonen erantzukidetasuna sustatu |
| 67. konpromisoa | Ekitatea babestea osasun-arretan, arreta berezia jarriz genero-ikuspegian eta giza talde ahulenetan |
| 68. konpromisoa | Pazienteari informazio eta arreta pertsonalizatu osoa eta kalitatekoa eman |
| 69. konpromisoa | Osasuna sustatu ingurune komunitarioan |
| 70. konpromisoa | Osasun publikoa sustatu, eta zaintza-sistema integral bat abian jarri |
| 71. konpromisoa | Koordinazioa bultzatu, osasuna hobetzeko |
| 72. konpromisoa | Arreta berezia eman mendekotasun-arazoak dituzten pertsonei |
| 73. konpromisoa | HIESaren eta beste gaixotasun infekzioso batzuen prebentzioa |
| 74. konpromisoa | Osasun-esparruko arreta integratua indartu, Osasun Erakunde Integratuen eredua finkatuz |

| | |
|---|---|
| 75. konpromisoa | Informazio Klinikoko Sistema Bateratua sendotu |
| 76. konpromisoa | Koordinazio soziosanitarioa sustatu |
| 77. konpromisoa | Espezializazio altua eta bikaintasun klinikoa sustatu |
| 78. konpromisoa | Morbimortalitatean eraginik handiena duten arazoentzako prozesu asistentzialak berrantolatu |
| 79. konpromisoa | Asistentzia onkologikoa berrantolatu. Plan Onkologiko Integrala |
| 80. konpromisoa | Zainketa aringarria bultzatu. Zainketa Aringarrien Plana zabaldu |
| 81. konpromisoa | Gaixotasun kronikoei, gaixotasun mentalei eta gaixotasun arraroei berariazko arreta eman |
| 82. konpromisoa | Arreta farmazeutikoa |
| 83. konpromisoa | Pazienteen premietara egokitutako osasun-azpiegiturak bermatu |
| 84. konpromisoa | Lehen mailako arreta eta hark sistema sanitarioan jokatzen duen eginkizun nagusia bultzatu |
| 85. konpromisoa | Osasun-sistemari eutsi, metodoak eta baliabideak optimizatuz |
| 86. konpromisoa | Pazientearen Segurtasun Estrategia garatu |
| 87. konpromisoa | Herritarren partaidetza eta Osasun Sistema Publikoaren gardentasuna bultzatu |
| 88. konpromisoa | Osasun-arloko profesionalen inplikazioa |
| 89. konpromisoa | Osasun-arloko ikerkuntzarako eta berrikuntzarako inbertsioa handitu. Jakintzaren kudeaketa sustatu, bai eta osasun-arloko ikerketan parte hartzen duten eragileekiko lankidetza ere |

Aipatutako konpromiso horietako bik, 66. eta 67. zenbakia dutenek hain zuzen, emakumeen eta gizonen berdintasunerako sustapenarekin nolabaiteko zerikusia dute. Honatx, bi konpromisoen formulazioaren azalpena eta, era berean, konpromiso bakoitzaren kasuan begiz jotako ekimenak.

| **Osasun Sailaren konpromiso eta ekimenak, Gobernu-programan jasota daudenak(XI. Legealdia)** |
|---|

| | |
|---|---|
| **66. konpromisoa**<br><br>**Osasunaren zainketan pertsonen erantzunkidetasuna sustatzea.** | **1. ekimena:** «Osasun Eskola» ekimena indartu, haurtzarotik bizitza-estilo osasuntsuagoak sustatzeko, baita osasun-zerbitzuen erabilera egokia ere. |
| | **2. ekimena:** Herritarrek gaixotasuna ezagutu, prebenitu eta kudeatzen inplikazio handiagoa eduki dezaten erraztu. |
| | **3. ekimena:** Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteei «Paziente Bizia» Programaren bidez lagundu, dauzkaten osasun-arazoen kontrol handiagoa izan dezaten. |
| **67. konpromisoa**<br><br>**Ekitatea babestea osasun-arretan, arreta berezia jarriz genero-ikuspegian eta giza talde ahulenetan** | **1. ekimena:** Osasun-zerbitzuen ekitatea bultzatu, eta herritarren osasunari arreta egokia ematen zaiola bermatu, prestazioak eta horien iraupena homogeneizatuz. |
| | **2. ekimena:** Osasun maila baxuagoak dituzten pertsonei bideratutako jarduketa espezifikoak garatu, desberdintasunak saihesteko. Hala, arreta berezia jarriko da adineko pertsonengan, desgaitasunen bat duten pertsonengan, immigranteengan, gaixotasun mentalak dituzten pertsonengan eta askatasunik ez duten pertsonengan. |
| | **3. ekimena:** Osasunaren Tokiko Sareak finkatu eta zabaldu, Lehen Mailako Arretako zerbitzuen, Osasun Publikoko zerbitzuen, udalen eta tokiko sektore eta elkarteen artean lankidetzan aritzeko egitura gisa. |
| | **4. ekimena:** C hepatitisa duten paziente guztiak artatu, gaixotasuna sendatzeko tratamenduak emanez; eta gaixotasun hori goiz detektatzeko eta ez zabaltzeko plan bat ezarri. |
| | **5. ekimena:** Genero-ikuspegia sustatu osasun-arloko jarduketa guztietan, desberdintasunik egon ez dadin. |

Aldi berean, goian aipatutako ardatzetako bat mahai gaineratu daiteke. 2.4 ardatzari buruz ari gara (“Integraziorako eta berdintasunerako agenda soziala”). Ardatz horretan, 23 konpromiso ageri dira (125-147); horietatik 2k (145 eta 147) esku artean dugun planarekin lotura egiten dute. Konpromiso horiek, Lehendakaritzak berak formulatuak, Osasun Sailari ere dagozkio. Honatx, konpromiso horiek eta horietako bakoitzari lotutako ekimenak:

| Gobernu-programan jasota dauden beste zenbait konpromiso eta ekimen (XI. Legealdia) | |
|---|---|
| **145. konpromisoa**<br><br>**Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea, funtsezko zutabea baita garapen jasangarria lortzeko.** | **1. ekimena:** Balio-aldaketa bultzatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko. |
| | **3. ekimena:** Berdintasunerako gobernantza hobetzea, genero-politikak bultzatzeko eta koordinatzeko mekanismoak indartuz |
| **147. konpromisoa**<br><br>**Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea** | **2. ekimena:** Emakumeen kontrako biolentzia desagerrarazteko gizarte osoari zuzendutako prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak indartzea, batez ere gazteei begira |
| | **4. ekimena:** Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimentzako arretaren efizientzia eta efikazia bultzatzea, erakundeen arteko koordinazioaren bidez. |
| | **5. ekimena:** Emakumeen aurkako indarkeria goiz antzemateko planak ezartzea, gaitz sozial hori aldez aurretik prebenitzeko. |

Goian azaldutakoa gogoan izanik, zera esan daiteke: Osasun Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan hau XI. Legealdirako (2016-2020) Gobernu Programak berdintasun-kontuei buruz jasotakoekin lerrokatuta dagoela.

# 3.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA

## 3.1.- Kontu orokorrak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak modu koordinatuan eta orokorrean jasotzen ditu euskal agintari publikoek 2018-2021 aldian berdintasunaren alorrean egiten duten jardunean esku hartzeko lerroak eta irizpideak; hori dela eta, XI. Legealdirako Gobernu Programarekin bat dator.

Plana Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak prestatu du, erakunde publiko eta gizarte-eragile guztiekin parte hartuta; era berean, plana prestatzeko oinarrizkoa izan da Euskadiko emakumeen eta feministen elkarteen eta berdintasun-teknikarien partaidetza ere.

Berdintasunerako VII. Planak otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15. artikuluak ezarritako legezko aginduari erantzuten dio. Era berean, Legeak xedatzen du jarraibide eta gidalerro horiek garatzean, Eusko Jaurlaritzako sailek berdintasunaren arloan jarduteko planak eta programak egin eta onetsiko beharko dituztela.

**XEDEA:** Balioak aldatzea

**PRINTZIPIO INSPIRATZAILEAK**

- Paradigma feminista
- Genero-ikuspegia
- Intersekzionalitatea
- Emakumeak ahalduntzea
- Giza garapen jasangarria

**BERMEAK**

- Konpromiso politikoa
- Aurrekontu eta giza baliabideak eta baliabide teknikoak
- Gardentasuna eta kontuak ematea
- Emakumeen eta herritarren parte-hartzea eta solaskidetza
- Erakundeen baterako erantzukizuna eta lankidetza

Alde horretatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren **xedea** botere publikoak gidatzea da, zertarako eta bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta emetasunaren mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko; balio horiek gizonak ere mugatzen dituzte, nahiz eta oraindik botere-egoeran egon, patriarkatuak haien bizitzak ere baldintzatzen baititu, unibertsala da eta.

VII. planean ezarritako **printzipioek** adierazten dute zein diren plan horrek inspiratutako eta orientatutako helburuen eta jardueren ikuspegi estrategikoak; **bermeek**, berriz, haien eraginkortasuna eta inpaktua ziurtatzea bilatzen dute.

Helburu hori lortzeko, batetik, gobernu onerako bost programa jasotzen ditu, Legeak ezarritako aginduak jasotzen eta zabaltzen dituztenak eta administrazio publiko osorako orokorrak direnak. Bestetik, esku hartzeko ardatzak definitzen ditu berdintasunaren alorrerako, gizarte bidezkoago eta berdinago baterantz egiteko.

**GOBERNU ONA**

**GOBERNU ONA:** Berdintasuna txertatzea euskal agintari publikoen antolaketan eta funtzionamenduan eta konpromiso politikoa esplizitu egitea.

**ESKU HARTZEKO ARDATZAK**

**EMAKUMEEN AHALDUNTZEA:** Emakumeen ahalduntzea babestea maila pertsonalean zein kolektiboan, sozialean eta politikoan.

**EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAMENDUA ERALDATZEA ESKUBIDEAK BERMATZEKO.** Politika ekonomikoak eta sozialak konektatzea, ekonomia sendoagoak eta gizarte jasangarri eta berdinagoak sortzen laguntzeko

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK.** Indarkeria prebenitzea, bizirik jarraitzen duten biktimak artatzea eta haiek izandako kaltea konpontzea.

## 3.2.- Gobernu onerako programa eta neurriak

Gobernu onaren alde egite aldera, Euskadiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planak (2018-2021) hamabost (15) neurri jarri zituen. Neurriok 4/2005 Legearen eskakizunekin eta, aldi berean, arlo desberdinetako programa eta arauetan jasotako konpromisoekin bat datoz.

Goian aipatutako neurri horiek bost (5) programatan jaso ziren:

- ✓ **I. programa** (**Konpromiso politikoa**): emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borondate politikoa zehaztu eta bideragarri egiten duten neurriak deskribatzen dira. (GO.1 - GO.4).

- ✓ **II. programa** (**Berdintasunerako gaikuntza**): administrazio publiko guztietako langileek behar duten ezagutza apurka-apurka eskuratzeko neurriak identifikatzen ditu, beren esku-hartzeetan genero-ikuspegia txertatzeko gai izan daitezen (GO.5).

- ✓ **III. programa** (**Genero-ikuspegia lan-prozeduretan**): zenbait neurri garatzen ditu, administrazio-prozedurak eta -prozesuak tresna baliagarriak izan daitezen berdintasuna lortzeko bidean (GO.6 – GO.12).

- ✓ **IV. programa** (**Koordinazioa eta elkarlana**): berdintasunari administrazioaren arlo eta maila guztietan zeharka heltzeko behar diren neurriak sartzen ditu (GO.13).

- ✓ **V. programa** (**Parte-hartzea eta intzidentzia):** herritarren hitza, batez ere emakumeena, politika publikoen diseinuan kontuan hartzeko neurriak jasotzen ditu (GO.14 – GO.15).

Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 19an plana onartu eta gero, Osasun Sailak, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordearen eskutik, Berdintasunerako Sail arteko Batzordera jo zuen 2018ko uztailaren 3an eta bertan *Osasun Sailaren lehentasunak XI. Legealdirako* izena daraman lan-txostena utzi zuen. Txosten horrek berdintasun-kontuei egiten die erreferentzia. Esandako txostena idazteko orduan, hainbat iturritik edan zuen Osasun Sailak. Honatx iturriok:

- ✓ Emakundeko eta Eusko Jaurlaritzako berdintasun-teknikariek osatu osatzen duten lan-talde teknikoak (LTT-GTT) gobernu onaren arlorako gomendatutako lehentasunak. Lehentasun-gomendio horiek Eusko Jaurlaritzako Sail guztiei zuzendutakoak dira.

- ✓ Osasun Sailak XI. legealdian landu nahi dituen beste hainbat arlokako lehentasun. Lehentasun horiek XI. Legealdiko (2016 – 2020) Gobernu Programarekin eta Berdintasunerako VII. Planarekin lerrokatutako daude.

Gainontzeko neurriei kalterik egin gabe, aipatutako lehentasun horiek Osasun Sailak bere buruari emandako Berdintasunerako Plan honetan jaso dira.

Honatx, 5 programok (I, II, III, IV eta V) eta VII Planean gobernu onari (GO) lotutako 15 neurriak. Neurrion artean berdez nabarmendu dira Osasun Sailak 2018ko uztailean lehentasunezkotzat jo zituenak.

| Gobernu onerako programak eta neurriak | | |
|---|---|---|
| I. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA | **GO 1 neurria:**<br><br>**Berdintasunaren alorreko araudi espezifikoa onartzea eta garatzea.** | **GO 1.1.**- Berdintasunerako berariazko araudia duten erakunde publikoen kopurua handitzea. |
| | **GO 2 neurria : Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontuak handitzea.** | **GO 2.2.-** Berdintasunera bideratutako aurrekontua handitu duten erakunde publikoen kopurua handitzea. |
| | **GO 3 neurria:**<br><br>**Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.** | **GO 3.3.-** Partaidetza nagusia kapital publikoarena izanik, berdintasunerako plan bat duten enpresen kopurua handitzea.<br><br>**GO 3.4.-** Berdintasunerako plangintza-prozesuak hobetzea.<br><br>**GO 3.5.-** Erakunde publikoek egindako berdintasun-planen ezarpen-, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuak hobetzea.<br><br>**GO 3.6.-** Berdintasunaren arloko kudeaketa publikoan kontuak ematea sustatzea, politiken ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta. |
| | **GO 4 neurria:**<br><br>**Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortzea eta indartzea.** | **GO 4.4.-** Berdintasuneko teknikarien egoera eta maila profesionala hobetzea.<br><br>**GO 4.5.-** Posizio organiko egokia eta beharrezko aurrekontuko zuzkidura duten berdintasunerako unitateen kopurua handitzea. |

| Gobernu onerako programak eta neurriak | | |
|---|---|---|
| II. PROGRAMA: BERDINTASUNERAKO GAIKUNTZA | **GO 5 neurria:**<br><br>**Erakunde publikoetako langileei, baita politikariei ere, prestakuntza ematea.** | **GO 5.1.-** Beren prestakuntza-planetan berdintasunerako prestakuntza txertatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea.<br><br>**GO 5.2.-** Jarduera politiko eta teknikora egokitutako berdintasunerako prestakuntza-ibilbideak diseinatzen dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea.<br><br>**GO 5.3.-** Berariaz berdintasunari buruzkoak ez diren baina genero-ikuspegia txertatzen duten prestakuntza-jardueren ehunekoa handitzea |

(.../...)

| Gobernu onerako programak eta neurriak | | |
|---|---|---|
| III. PROGRAMA: GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN | **GO 6 neurria:**<br><br>**Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.** | **GO 6.1.-** Azterlan eta estatistiketan sexuaren aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea.<br><br>**GO 6.2.-** Azterlan eta estatistiketan sexuaren aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea.<br><br>**GO 6.3.-** Emakumearen egoerari buruz eta/edo berdintasunaren arloan ikuspegi intersekzionala duten berariazko azterlanen kopurua handitzea. |
| | **GO 7 neurria:**<br><br>**Enplegu publikora sartzeko eta bertan sustatzeko hautaketa-prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea.** | **GO 7.1.-** Berdintasunaren arloan berariazko prestakuntza behar duten EAEko berdintasuneko teknikariak eta eragileak hautatzeko prozesuen ehunekoa handitzea.<br><br>**GO 7.2.-** Emakumeen ordezkaritza txikia denean berdinketa hausteko emakumeen aldeko klausula bat duten enplegu publikoa lortzeko, hornitzeko eta sustatzeko hautaketa-prozesuen ehunekoa handitzea.<br><br>**GO 7.3.-** Beren gai-zerrendan berdintasunari buruzko edukiak dituzten enplegu publikoa lortzeko eta sustatzeko hautaketa-prozesuen ehunekoa handitzea. |
| | **GO 8 neurria:**<br><br>**Komunikazioan berdintasuna txertatzea.** | **GO 8.1.-** Euskadiko aldizkari ofizialetan argitaratutako dokumentuetan, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten dutenen ehunekoa handitzea.<br><br>**GO 8.2.-** Hizkuntzaren eta gainerako komunikazio-elementuen erabilera ez-sexista egiten duten euskal herri-administrazioen webguneetako edukien kopurua handitzea.<br><br>**GO 8.3.-** Euskal erakunde publikoek erabiltzen eta berdintasunaren arloko lorpenak agerian jartzen dituzten komunikazio-euskarrien (memoriak, webguneak, etab.) erabilera handitzea.<br><br>**GO 8.4.-** Erakunde publikoek onartutako berdintasunaren arloko oinarrizko dokumentuak guztientzako eskuragarri jartzea. |

(…/…)

(…/…)

| Gobernu onerako programak eta neurriak | | |
|---|---|---|
| III. PROGRAMA: GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN | **GO 9 neurria:**<br><br>**Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.** | **GO 9.2.-** Generoaren araberako eraginari buruzko aldez aurretiko ebaluazioa duten arauen ehunekoa handitzea.<br><br>**GO 9.3.-** Berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten arauen ehunekoa handitzea. |
| | **GO 10 neurria:**<br><br>**Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.** | **GO 10.1.-** Aurrekontuak berdintasunean duen eraginaren aurretiko balorazioa egiten duten herri-administrazioen kopurua handitzea.<br><br>**GO 10.2.-** Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko jarduerak egiten ari diren herri-administrazioen kopurua handitzea. |
| | **GO 11 neurria:**<br><br>**Sektorekako eta zeharkako planetan genero-ikuspegia sartzea.** | **GO 11.1.-** Beren diseinu-, kudeaketa- eta ebaluazio-prozesuetan genero-ikuspegia kontuan hartzen duten sektorekako eta zeharkako planen ehunekoa handitzea.<br><br>**GO 11.2.-** Berdintasunerako unitate edo eragile batek osatu eta ezarri dituen sektorekako edo zeharkako planen kopurua handitzea. |
| | **GO 12 neurria:**<br><br>**Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.** | **GO 12.1.-** Kontratu eta/edo diru-laguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten eta betetzen diren ala ez kontrolatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea.<br><br>**GO 12.2.-** Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten kontratuen ehunekoa handitzea.<br><br>**GO 12.3.-** Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten diru-laguntzen, hitzarmenen eta beken ehunekoa handitzea. |

| Gobernu onerako programak eta neurriak | | |
|---|---|---|
| V. PROGRAMA: KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA | **GO 13 neurria:**<br><br>**Berdintasunaren aldeko koordinazioa eta elkarlana indartzea.** | **GO 13.3.-** Berdintasunerako sailarteko koordinazio-egitura duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta horretan parte hartzen duten arloen kopurua handitzea.<br><br>**GO 13.4.**- Nazioarteko lankidetzako guneak ugaritzea. |
| V. PROGRAMA: PARTE-HARTZEA ETA INTZIDENTZIA | **GO 14 neurria:**<br><br>**Emakumeek eta gizonek zuzendaritza-organoetan eta/edo kide anitzeko organoetan ordezkaritza orekatua izan dezatela sustatzea.** | **GO 14.1.**- Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten kide anitzeko zuzendaritza-organoen ehunekoa handitzea.<br><br>**GO 14.2.**- Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten epaimahaien edo antzeko organoen ehunekoa handitzea.<br><br>**GO 14.3.-** Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten hautaketa-epaimahaien ehunekoa handitzea. |
| | **GO 15 neurria:**<br><br>**Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia sartzea.** | **GO 15.1-** Berdintasunerako herritarren partaidetzako batzorde edo organo bat duten herri-erakundeak gehitzea.<br><br>**GO 15.2.**- Beren osaeran eta beren funtzio eta helburuen artean berdintasuna txertatzen duten kontseilu eta organoen kopurua handitzea.<br><br>**GO 15.3.**- Emakumeek politika publikoetan parte hartzeko kontseiluen, organoen, plataformen eta parte hartzeko beste modu berriago batzuen eragina handitzea. |

## 3.3.- Berdintasun-alorrean esku hartzeko ardatzak

Berdintasun-alorrean izan beharreko esku hartze ororen finkapena egite aldera, VII. Planak honako multzo hau zehazten du: 3 ardatz (I, II eta III), 8 programa (1-8) eta 20 neurri. Horiek guztiak 4/2005 Legearen eskakizunekin eta, aldi berean, arlo desberdinetako programa eta arauetan jasotako konpromisoekin bat datoz.

Hona hemen erakunde publiko guztiei, Osasun Saila barne, dagozkien ardatz, programa, helburu eta neurriak. Bertan ikusi ahal izango denez, zenbait kasutan, ez dira helburuak eta neurriak aipatzen. Horrek badu zergatia jakina. Helburu eta neurri horiek beste zenbait Sailen egiteko esklusiboa da. Beste zenbait kasutan berriz, kolore grisez nabarmendu dira neurriak. Kasu hauetan zera adierazi nahi da: neurriok Osasun Sailaren egiteko esklusiboa dela.

| I. ARDATZA: Emakumeak ahalduntzeko programak eta helburuak | | |
|---|---|---|
| 1. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA | **1.1.- Emakumeek eta feminismoak giza garapen jasangarriari egiten dioten ekarpenaren aitortza sustatzea.** | 1.1.1.- Berdintasunaren arloko gizarte-aurrerapenean emakumeek eta feminismoak gizarteko berdintasun-maila areagotzeko egindako ekarpenen ikusgarritasuna eta aitortza handitzea.<br><br>1.1.2.- Gehien feminizatutako bizitzako eremuen gizarte-balioespena handitzea.<br><br>1.1.3.- Emakumeek eta feminismoak bizitzaren eremu guztietan egiten dituzten lorpenak eta ekarpenak gizarte-komunikabideetan hedatzen laguntzen duten programen eta edukien kopurua handitzea.<br><br>1.1.4.- Emakumeek eta feminismoak gizartean eta historian egindako ekarpenak beren hezkuntza-proiektuen edukietan txertatzen dituzten ikastetxeen kopurua handitzea. |
| | **1.2.- Emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia garatzeko laguntza ematea.** | 1.2.1.- Generoko desparekotasunek eta diskriminazioek beren bizitzetan duten eraginaz jabetzen diren eta trebakuntza-prozesuen bidez beren auto-estimuan eta autonomian aldaketak bultzatzen dituzten emakumeen kopurua handitzea.<br><br>1.2.2.- Nork bere erabakiak hartzeko garaian autonomia ekonomikoa izateak duen eragina aintzat hartzen duten emakumeen kopurua handitzea.<br><br>1.2.3.- Beren herritar-eskubideak ezagutzen eta horiek eraikitzen parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea. |

| I. ARDATZA: Emakumeak ahalduntzeko programak eta helburuak | | |
|---|---|---|
| 1. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA | **1.3.- Autozainketa eta osasuna sustatzea adin guztietako emakumeengan.** | 1.3.1.- Beren burua zaintzeko ohitura duten neskatilen, emakume gazte eta helduen kopurua handitzea (aipatu ohitura osasuntsuak: elikadura orekatua izatea, jarduketa fisiko pozgarria egitea, eta arrisku-jarrerak murriztea, besteak beste).<br><br>1.3.2.- Emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako harreman eta portaera afektibo-sexualak eta elkarbizitza garatzen dituzten emakume gazteen eta helduen kopurua handitzea.<br><br>1.3.3.- Bizitza osasuntsua izateko emakumeen itxaropena handitzea. |
| | **1.4.- Baliabideak hobetzea, halako moldez non emakume guztien askotariko egoerek, esperientziek eta premiek beren aldaketan eragin dezaten, bereziki desoreka handienak islatzen dituzten baliabideetan.** | 1.4.3.- Osasun-arreta hobetzea, esku-hartzean genero-ikuspegia txertatuz. |

| I. ARDATZA: Emakumeak ahalduntzeko programak eta helburuak | | |
|---|---|---|
| 2. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA | **2.1.- Gizarte- eta herri-mugimenduetatik berdintasuna sustatzea** | 2.1.1.- Emakumeen berdintasuna lortzearen alde lan egiten duten emakume-elkarteen kopurua handitzea.<br><br>2.1.2.- Egitarauetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko helburuak dituzten erakunde sozialen kopurua handitzea.<br><br>2.1.3.- Munduan emakumeen eta gizonen eskubide-berdintasuna eta, bereziki, emakume errefuxiatuen eta migratuen eskubideak sustatzen dituzten emakume-elkarteen eta gizarte-erakundeen kopurua handitzea. |
| | **2.2.- Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan** | 2.2.3.- Gizarte-, sindikatu-, enpresa- eta politika-erakundeetan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea.<br><br>2.2.4.- Gizarte- eta politika-arloan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea, parte hartzeko formula eta/edo gune berrien bidez. |
| | **2.3.- Erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan emakumeen presentzia eta eragina handitzea** | 2.3.1.- Emakumeen presentzia indartzea ordezkaritza eta/edo ardura politiko publikoko postuetan.<br><br>2.3.3.- Elkarte-mugimenduko, irabazi-asmorik gabeko erakundeetako –kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren arlokoak barne–, erakunde politikoetako, sindikatuetako eta enpresa-erakundeetako erabaki postuetan eta guneetan dauden emakumeen kopurua handitzea. |

| II. ARDATZA: Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzeko programak eta helburuak, eskubideak bermatu ahal izateko | | |
|---|---|---|
| 3. PROGRAMA: BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA ONARTZEA | **3.1.- Laguntza ematea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gizarte-balioa dela onartzeko.** | 3.1.1.- Berdintasuna gizarte-aurrerapenarekin lotzen duten pertsonen kopurua handitzea.<br><br>3.1.2.- Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria gizarte-arazo garrantzitsutzat hartzen duten pertsonen kopurua handitzea.<br><br>3.1.3.- Emakumeei eta gizonei bizitzako hainbat arlotan rol eta estereotipo bereiziak esleitzen dizkieten ume, gazte eta helduen kopurua gutxitzea.<br><br>3.1.4.- Berdintasuna gizarte-balio modura sustatzearekin konpromisoa duten komunikabideen kopurua handitzea.<br><br>3.1.5.- Gizarte-komunikabideetan neskatoen, mutikoen, gazteen eta helduen presentzia orekatua eta aniztasuneko eta estereotipo sexistarik gabeko irudia sustatzen duten programen eta edukien kopurua handitzea bizitza sozialeko arlo guztietan. |
| | **3.3.- Antolaketaren eta enpresaren kultura berdintasunaren alde jartzea.** | 3.3.1.- Kultura eta enpresa-praktikak berdintasunerantz aldatzeko ikuspegia txertatzen duten berdintasun-planak dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta erakunde pribatuen kopurua handitzea.<br><br>3.3.2.- Genero-ikuspegia duten kudeaketa aurreratuko sistemak txertatzen dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta erakunde pribatuen kopurua handitzea.<br><br>3.3.3.- Berdintasunera bideratutako aldaketarako gogoeta- eta eragin-guneetan parte hartzen duten erakundeen eta enpresen kopurua handitzea. |

| II. ARDATZA: Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzeko programak eta helburuak, eskubideak bermatu ahal izateko | | |
|---|---|---|
| 4. PROGRAMA: AUTONOMIA EKONOMIKOA EMAKUMEENTZAT | **4.1.- Lanpostu gehiago eta hobeak sortzea.** | 4.1.1.- Emakumeen jarduera- eta okupazio-tasa handitzea, kalitatezko lanpostuetara bideratuta.<br><br>4.1.4.- Ildo horretatik, lehentasuna izango du, batetik, zientzian, teknologian, ekonomian eta finantzetan emakume ikerlarien kopurua handitzeak, eta, bestetik, teknologiako sektore aurreratu eta trinkoenetan emakume langileen kopurua handitzeak.<br><br>4.1.5.- Zainketarekin lotutako enplegu-sorguneak erabat garatzea, sektore horretan kalitatezko enplegua sortuz.<br><br>4.1.7.- Genero-desoreka murriztea emakumeek eta gizonek lan ordaindurako eta prestakuntzarako ematen duten denboran, osoko lan zama handitu gabe. |
| | **4.2.- Pobreziaren feminizazioa murriztea.** | 4.2.3.- Erakundeek eskainitako erantzunak eta baliabideak (zerbitzu sozialak eta gizarteratzekoak, ekonomikoak, osasuna, hezkuntza, kultura, enplegua, justizia, segurtasuna eta etxebizitza) pobrezia- edo bazterketa-arriskuan edo -egoeran dauden edota beharrizan bereziak dituzten emakumeen beharretara hobeto egokitzea. |

<table>
<tr><th colspan="3">II. ARDATZA: Ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzeko programak eta helburuak, eskubideak bermatu ahal izateko</th></tr>
<tr><td rowspan="2">5. PROGRAMA: ZAINKETEN EKONOMIA FEMINISTA</td><td>5.1.- Sozialki onartzea zaintza-lanak ezinbesteko baldintza direla bizitzaren jasangarritasunerako.</td><td>5.1.1.- Zainketa-lanak naturalki emakumeen ardura direla ukatzen duten eta horiek gizarte-premia bat direla eta horiek hornitzeko gizonak, erakundeak, enpresak eta erakunde publikoak eta gizarte zibila inplikatzea beharrezkoa dela ulertzen duten gazteen eta helduen kopurua handitzea.<br><br>5.1.2.- Eredu maskulino tradizionala zalantzan jartzen duten eta berdintasunarekin koherenteak diren eta zainketa-lanekiko konpromisoa duten jarrera eta portaerak dituzten gizon gazte eta helduen kopurua handitzea.<br><br>5.1.3.- Gaur egun zainketarako dagoen arreta-eredua hazten ari den zainketen askotariko eskarira egokitzea aztertzea, erantzuna hobetzeko xedez, erantzunkidetasuneko eta zainketa-lanen onarpen sozial eta ekonomikoko ikuspegi batetik.<br><br>5.1.4.- Eztabaida publikoa sustatzea, gaur egungo eredu ekonomikoaren bidez, bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako garapen-eredu bat bultzatzeko.</td></tr>
<tr><td>5.3.- Zaintza-lanen antolakuntza sozial berria babestea, horien gaineko ardurak birbanatzeko</td><td>5.3.1.- Genero-desoreka murriztea emakumeek eta gizonek ordaindu gabeko zainketa-lanetan ematen duten denboran.<br><br>5.3.2.- Haur eta gazteek zainketa-lanak egiten ematen duten denbora handitzea, mutilei arreta berezia jarriz.<br><br>5.3.3.- Bateratze erantzunkideko neurriei heltzen dieten gizonen kopurua handitzea.<br><br>5.3.4.- Bateratze-neurriei heltzeko gizonek eta emakumeek hautematen duten zailtasun-maila murriztea.<br><br>5.3.5.- Gurasotasun-baimenak parekatzeko aukera sustatzea, berdinak eta besterenezinak izan daitezen.<br><br>5.3.7.- Administrazio eta enpresa publikoek hartutako bateratze erantzunkideko neurrien kopurua handitzea.<br><br>5.3.9.- Herritarrei zuzendutako zerbitzu publikoen ordutegi-malgutasuna handitzea.<br><br>5.3.10.- Bateratze erantzunkidea eta pertsonen autonomia errazteko irizpideak txertatzea hirigintza-plangintzan eta etxebizitzen, gune publikoen eta garraiobide jasangarrien diseinuan.</td></tr>
</table>

| III. ARDATZA: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko programak eta helburuak | | |
|---|---|---|
| 6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA | **6.1.- Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea.** | 6.1.1.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde dauden eta hori sustatzen duten pertsonak gero eta gehiago izatea, batik bat adingabeez arduratzen direnak, edo adingabeentzako eredu direnak.<br><br>6.1.2.- Pertsonak euren sexuaren arabera maila handiagokoak edo txikiagokoak direla adierazten duen irudi eta eduki mediatiko oro kentzea, baita pertsonak sexu-objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edota bultzatzen dutenak ere, hedabideetan agertzearen ondorioz berriz biktimizatzea saihestuz.<br><br>6.1.3.- Emakumeen kontrako indarkeriaren informazio-trataera hobetzea, genero-desberdintasuna indarkeria sortzen duen elementu gisa ikus eta aurkez dadin, eta emakumeak borrokaren eragile aktibo gisa.<br><br>6.1.4.- Desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura ikusarazten duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten edo hura prebenitzeko ahaleginak egiten dituzten eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea sustatzen duten pertsonen kopurua areagotzea; batez ere, mutilena eta gizonena.<br><br>6.1.5.- Emakumeen aurkako indarkeria motei eta horiek desparekotasunarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea, batik bat indarkeriaren modu zorrotz eta ezkutukoenei buruzkoa. |

(…/…)

| III. ARDATZA: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko programak eta helburuak | | |
|---|---|---|
| (…/…) 6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA | **6.2.- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.** | 6.2.1.- Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, Euskadin gertatutako emakumeen kontrako indarkeria-kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko.<br><br>6.2.2.- Emakumeen aurkako indarkeria eta horren adierazpenak hobeto ezagutzea.<br><br>6.2.4.- Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzeetan horrek dituen ondorioei buruzko hausnarketa bultzatzea, indarkeria mota berrietan arreta berezia jarriz.<br><br>6.2.5.- Emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik irten direnei arreta ematen esku hartzen duten profesionalek prestakuntza iraunkorra, behar bestekoa eta eremu eta ardura-maila guztietara egokitutakoa jaso dezaten bermatzea.<br><br>6.2.6.- Beren esku-hartzean emakumeen ahalduntze pertsonala eta kaltea konpontzearen kontzeptua txertatzeko behar besteko trebakuntza duten profesionalen kopurua handitzea. |
| | **6.3.- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta finkatzea.** | 6.3.2.- Emakumeen genitalen mutilazioaren eta praktika kulturalekin lotutako beste indarkeria-agerpen batzuen prebentzioa sustatzea –adibidez, nahitaezko ezkontzak, behartutako abortuak eta antzutzeak eta ustezko «ohorearen» izenean egindako delituak–.<br><br>6.3.3.- Dibertsitate funtzionala duten emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren prebentzioa handitzea.<br><br>6.3.4.- Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko prebentzio- eta arreta-programen eta -neurrien eraginkortasuna hobetzea. |

| III. ARDATZA: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko programak eta helburuak | | |
|---|---|---|
| 7. PROGRAMA: KALTEA DETEKTATZEA, ARTATZEA ETA KONPONTZEA. | **7.1.- Emakumeen aurkako indarkeriaren hautemate goiztiarra handitzea.** | 7.1.1.- Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarrean era proaktiboan eta ezarritako protokoloen arabera jardungo duten profesionalak ugaritzea (hezkuntza-, osasun-, polizia-, epaitegi-, lan- eta gizarte-sisteman).<br><br>7.1.2.- Esku hartzeko eremu guztietan indarkeriaren detekzio goiztiarra handitzea, indarkeria psikologikoan arreta berezia jarriz.<br><br>7.1.3.- Informazio egokia jasotzen duten emakume biktimen kopurua handitzea, arreta integraleko prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren bere itxaropenei egokitutako erabakiak hartu ahal izan ditzaten.<br><br>7.1.4.- Edozer motatako indarkeria jasan duten eta zerbitzuak eta baliabideak goiz erabiltzea erabakitzen duten emakumeen kopurua handitzea, zerbitzu eta baliabide horietara heltzeko zailtasun handienak dituztenengan arreta berezia jarririk. |
| | **7.2.- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala bermatzea, ahalduntzearen ikuspegitik, esku-hartze horretan nazioarteko estandarrekin bat eginez.** | 7.2.1.- Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko baliabideen kalitatean, sarbidean eta hornikuntzan lurraldeen eta udalen arteko aldeak murriztea, batik bat landa-eremuko udalerrietan .<br><br>7.2.2.- Euskadin dauden berariazko baliabide eta zerbitzuek gizakien salerosketaren biktima direla-eta artatzen dituzten emakume eta haurren kopurua handitzea.<br><br>7.2.3.- Beren lantokian sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentzio- eta laguntza-protokoloen estaldura duten pertsonen kopurua areagotzea.<br><br>7.2.4.- Arriskuan dauden taldeetan egoteagatik sortutako egoerei erantzuteko behar adinako baliabideak dituzten arreta-zerbitzuak gehitzea, ikuspegi intersekzionaletik.<br><br>7.2.5.- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren seme-alaben berariazko premiak betetzeko baliabideak dituzten arreta-zerbitzuen kopurua handitzea, ikuspegi intersekzionaletik.<br><br>7.2.10.- Sexu-indarkeriako kasuen aurreko arreta emateko sistemaren erantzuna hobetzea. |

| III. ARDATZA: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko programak eta helburuak | | |
|---|---|---|
| (…/…) 7. PROGRAMA: KALTEA DETEKTATZEA, ARTATZEA ETA KONPONTZEA. | **7.3.- Kaltearen ordaina jasotzeko eskubidea bermatzea, hala norbanakoarena nola kolektiboa** | 7.3.1.- Biktimak eta haien seme-alabak erabat osatzen laguntzeko baliabide publikoak ugaritzea, haietako bakoitzaren eta indarkeriak haiengan dituen ondorioen aniztasuna onartuz.<br><br>7.3.2.- Emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespena, biktimenganako errespetua –jazotakoa haien ahotik kontatuz, egia zabaltzen dela bermatzeko– eta bizitakoaren gizarte-onarpena –berriro biktimizatzea saihesteko– adierazten duten ekintza publikoen kopurua handitzea.<br><br>7.3.3.- Kaltea errepika ez dadila bermatzeko formulak aztertzea, arreta eragilean jarriz, emakume guztiek indarkeriarik gabeko bizitza izatea bermatzeko. |
| 8. PROGRAMA: ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA. | **8.1.- Euskadin emakumeen aurkako indarkeriari heltzen dioten erakundeen arteko esku-hartze koordinatua sustatzea.** | 8.1.1.- Euskadin emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dagoen araudia errealitate horri erabat ekiteko behar diren aurrerapen eta erronka berriekin bat etorraraztea.<br><br>8.1.2.- Indarrean dauden erakunde arteko koordinazioko akordioak emakumeen aurkako indarkeriaren arloko araudira, tekniketara eta gizarte-aldaketetara egokitzea.<br><br>8.1.3.- Emakumeen kontrako indarkeria-kasuetarako prebentzio- eta arreta-protokoloak, egoera ezberdinetara egokituta daudenak: horrelako protokoloen estaldura duten biztanle kopurua gehitzea. |

# 4.- OSASUN SAILAREN PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

## 4.1.- Aurreko planaren (2014-2016 + 2017) diagnostiko-datu nagusiak

Hona hemen aurreko plangintzaldiari buruzko daturik esanguratsuenak. Datuok bi ikuspunturen arabera ematen dira: gobernu onaren ikuspuntutik eta esku hartzeko ardatzen ikuspuntutik.

### 4.1.1.- Gobernu ona

Osasun Sailak gobernu onerako duen konpromiso-mailaren diagnostikoa egiteko orduan, honako auzi hauek aztertu dira programa bakoitzerako (VII. Planean eta haren adierazleetan gobernu onerako aurreikusitako neurriekin korrelatiboak):

**I. Programa:**

**Konpromiso politikoa**

**(.../...)**

X. Legealdiko Osasun Sailaren Berdintasunerako planak 2014-2016 epealdia hartzen zuen barne. 2017an, Emakundek aginduta, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planaren idazketa bukatu gabe zegoela ikusita, 2014-2016 epealdiko planaren iraunaldia luzatzea erabaki zen. Hori dela eta, 2017ko datuak ere jasotzen dira.

| Urtea | Zenbatetsitako aurrekontua[1] | Egikaritutako aurrekontua[2] |
|---|---|---|
| **2014** | 1.465.500,05 € | 1.570.148,58 € |
| **2015** | 1.505.821,60 € | 2.058.503,00 € |
| **2016** | 1.377.203,00 € | 2.637.203,00 € |
| **2017** | 2.523.255,00 € | 2.707.964,00 € |
| **GUZTIRA** | **6.871.779,65 €** | **8.973.818,58 €** |

**Iturria**: urtean urteko aurrekontu-memorien arabera egindako lanketa propioa.

[1] Jarraian, "**Zenbatetsitako aurrekontua**" nola kalkulatzen den jakiten lagunduko digun azalpena ematen da. Taulan aipatu aipatzen den urte bakoitzaren aurreko irail-urrian, Osasun Saileko berdintasuneko administrazio-atalak, zuzendaritza bakoitzeko pertsona bat lagun duelarik, etorri datorren urteari dagozkion aurrekontu-memoriak aztertzen ditu. Azterketak xede jakina du: Osasun Sailak berdintasun-politiketan inbertituko duen diruaren zenbatekoa zenbatestea. Zenbait kasutan, ekintzak berdintasunari lotuta egon arren, ezin zaie kosturik egotzi. Zenbatetsitako diru-kopurua Ogasun eta Ekonomia Sailari jakinarazten zaio. Sail horretako berdintasuneko administrazio-unitateak Jaurlaritzako Sail guztietatik jasotako datuak biltzen ditu eta, jarraian, generoak Euskadiko Aurrekontu Orokorretan duen eraginari buruzko txostena lantzen du. Hartu bezain laster, Emakundek txosten horren gainean duen iritzia ematen du.

[2] "**Egikaritutako aurrekontua**" izeneko atalean ageri diren datuak taulan aipatu aipatzen den urte bakoitzaren osteko lehen hiruhilekoan Osasun Sailak berdintasun-kontuetan urte osoan burututako ekintzen ebaluazioa egin ahala finkatzen dira. Zenbait kasutan, ezinezkoa da burututako ekintzen diru-kopuru bat esleitzea.

| | |
|---|---|
| **(…/…)**<br><br>**I. programa:**<br><br>**Konpromiso politikoa** | Aurreko agintaldian berdintasun-politiken garapenari zitzaion:6.871.779,65 €-ko aurrekontua zenbatetsi zitzaion. Guztira egikaritutako aurrekontua 8.973.818,58 € izan zen.<br><br>Azterketa konparatiboa eginez gero, zera ikusten da: zenbatetsitakoak eta egikaritutakoak pixkanakako igoera izan dutela. Salbuespen bakarra 2016an izan zen: urte horretan zenbatetsitako kopurua 128.618,50 eurotan jaitsi zen. Jaitsierak azalpen jakina du: gisa papilomaren bisuaren kontrako txertoaren prezioak behera egin zuen. Aztertutako urte guztietan, egikaritutako aurrekontua zenbatetsitako aurrekontuaren gainetik ibili da.<br><br>Sailak berdintasunaren alde egindako plangintzari dagokionez, nabarmendu behar da orain arte legealdiko 3 plan eta urteko 7 plan onartu direla. Urteak igaro ahala, hobekuntzak sartu dira Sailari atxikitako zuzendaritza eta erakunde guztien partaidetzaren plangintzan, eta proposatutako ekintza kopurua handitu da. Bestalde, azpimarratu behar da Osakidetzak berdintasunari buruzko bere diagnostikoa duela, eta laster berdintasunerako bere I. Plana aurkeztuko duela.<br><br>Azkenik, berdintasunerako administrazio-unitateak sortzeari eta indartzeari dagokionez, nabarmendu behar da Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko batek (Osakidetza) dagoeneko badituela Berdintasun Unitate bat eta berdintasunerako bi teknikari espezializatu, berdintasunaren esparruan lan egiten dutenak. |
| **II. programa:**<br><br>**Berdintasunerako gaikuntza** | Osasun Sailak berdintasun-kontuei buruzko prestakuntza eman zien bere langileei aurreko agintaldian. Prestakuntza hori, HAEEk emanikoa, kategoria desberdinetako 18 langilek hartu zuten (15 emakume eta 3 gizon). Era berean, Osasun Sailak urtero-urtero hartu du parte Emakundek sustatutako Berdintasunerako Foroan, hainbat jardunaldi antolatuz. Hona hemen landutako gaiak: Zuzendaritzako emakumeak Euskadiko Osasun Sisteman; Genitalen Mutilazioa, Euskadiko Osasun Sisteman gomendatzen diren jarduketak; eta genero-ikuspegiaren txertaketa Osasun Publikoko programetan. Guztira, Saileko eta Osakidetzako 174 pertsona (137 emakume eta 37 gizon) joan ziren Osasun Sailak antolatutako jardunaldietara. |

| | |
|---|---|
| **III. programa:**<br><br>**Genero-ikuspegia lan-prozeduretan**<br><br>**(…/…)** | • **Genero-ikuspegiak estatistiketan eta azterketetan daukan integrazioa**ri dagokionez, esan behar da Osasun Sailaren estatistika ofizial eta ez ofizial guztiek informazioa sexuaren arabera bereizita ustiatzen eta interpretatzen dutela, modu sistematikoan. Unean-unean, genero-adierazleak txertatu dira estatistiketan eta, horiei esker, hobeto ezagutu ahal izan dira emakumeen eta gizonen balioetan, eginkizunetan, egoeretan, premietan eta abarretan dauden desberdintasunak. Azkeneko legealdian, 9 azterlan espezifiko egin dira Euskadiko emakumeen egoerari buruz eta/edo berdintasunarekin lotuta.<br><br>• **Enplegu publikoaren barneko hautaketa- eta sustapen-prozesuetan berdintasunaren alorreko edukiak** barneratzen ote diren behatuta, adierazi behar da Funtzio Publikoari - Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailari dagokiola, Eusko Jaurlaritzan, enplegu publikora iristeko hautaketa-prozesuen gaineko eskumena. Hauek dira Osasun Sailari dagozkion eskumen-eremuak: barne-sustapeneko prozesuak eta zerbitzu-eginkizunen eta izendapen askeko lanpostuen hornidura.<br><br>• **Berdintasunak komunikazioan izan duen txertaketari dagokionez**, adierazi behar da Osasun Sailak hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten duela argitaratzen dituen arau guztietan; hizkuntza inklusiboa eta irudi ez-sexistak erabiltzen ditu herritarrei bideratutako informazio- eta komunikazio-kanpainetan.<br><br>• **Azken legealdian, araugintzan berdintasun-printzipioa integratzeari dagokionez**, generoaren 28 inpaktu-txosten prestatu dira Sailak prestatutako araudien gainean.<br><br>• **Sailaren aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez**, nabarmendu behar da azken ekitaldian, 2018ko aurrekontuen aurreproiektuan, generoaren araberako inpaktuaren aldez aurreko balioespenaren analisia egin dela 6 aurrekontu-programatan, hau da, Sailaren aurrekontu-programa guztien % 100etan.<br><br>• **Osasun Sailaren plan sektorial eta transbertsaletan genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez**, nabarmendu behar da X. Legealdian onartutako Euskadiko 2013-2020 Osasun Planak berdintasuneko diagnostikoa duela; berdintasuneko helburu eta neurriak dituela; eta berdintasun-unitatearen partaidetza duela diseinuan.<br><br>• **Kontratuetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzeari dagokionez**, nabarmendu behar da Sailak aurreko legealdian egindako 121 kontratazioen % 100ek biltzen dituztela berdintasun-klausulak, kasu honetan, batez ere egikaritze-baldintzei lotuta. Era berean, Sailak emandako 21 diru-laguntzen % 42,8k berdintasunerako klausulak zituzten, batez ere balorazio-prozesuei buruzkoak. Osasun Sailak aurreko legealdian egindako 18 hitzarmenen % 100ek berdintasunerako klausulak zituzten. |

**(…/…)**

**III. programa:**

**Genero-ikuspegia lan-prozeduretan**

**(…/…)**

<table>
<tr><th>Urtea</th><th>Hitzarmen kopurua</th><th>Hitzarmenen eta hitzartutako erakundeen nolakoa</th></tr>
<tr><td>2014</td><td>5</td><td rowspan="5">Hitzarmenen nolakoa:<br><br>- Osasun publikoari buruzko kontuetan sinatutako lankidetza-hitzarmenak.<br>- Proiektuei zuzendutako laguntza-deialdien ebaluazio zientifiko eta teknikoa egin ahal izateko sinatutako lankidetza-hitzarmenak.<br>- Teknologien ebaluazio-jardueren garapena egin ahal izateko lankidetza-hitzarmenak.<br>- Zentzu sozio-sanitarioen mantenu-lanak egite aldera sinatutako lankidetza-hitzarmenak.<br>- Irakaskuntza-praktikak ahalbideratze aldera sinatutako lankidetza-hitzarmenak.<br>- Osasun-laguntzari buruzko kontuetan sinatutako lankidetza-hitzarmenak<br>- Drogen plan nazionalaren bueltan sinatutako lankidetza-hitzarmenak.<br>- Jarraipen farmakoterapeutikoa egiteko programa gauzatu ahal izateko sinatutako hitzarmenak.<br><br>Erakundeen nolakoa:<br><br>Nafarroako Gobernua, Osasun Ministerioa, EHU-UPV, Donostiako Udala, Barne Ministerioa, Carlos III Osasun Institutua, Sendagaien eta Osasun Produktuen Agentzia Espainiarra, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa, Gizakia fundazio zibila, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialak, Enplegua eta Gizarte Segurantza Ministerioa (INSS), Ikerketarako Estatu Agentzia… …</td></tr>
<tr><td>2015</td><td>8</td></tr>
<tr><td>2016</td><td>3</td></tr>
<tr><td>2017</td><td>5</td></tr>
<tr><td>Guztira</td><td>21</td></tr>
</table>

Iturria: Osasun Saileko Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzua (2019ko martxoa).

**(…/…)**

**III. programa:**

**Genero-ikuspegia lan-prozeduretan**

| **Urtea** | **Kontratu kopurua** | **Kontratuen nolakoa** |
|---|---|---|
| 2014 | 25 | - Mantenu- garbiketa, -zaintza eta segurtasun-zerbitzuak.<br>- Txertoen, erreaktiboen, materialen, osagarrien eta bestelakoen erosketa.<br>- Prebentzio-zerbitzuak<br>- Informazio-zerbitzuak; garapen operatiboak eta lizentziak.<br>- Osasun-txartelen indibiduala (OTI): horniketa, inprimatze-lanak, kodifikazioa eta bidalketa.<br>- Taloitegi itxurako farmazia-errezeten inprimatze-<br>- Lurralde-bulegoen birgaikuntza<br>- 2018ko Osasun-inkesta egitea. |
| 2015 | 25 | |
| 2016 | 28 | |
| 2017 | 43 | |
| **Guztira** | **121** | |

Iturria: Osasun Saileko Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzua (2019ko martxoa).

| | |
|---|---|
| **IV. programa:**<br><br>**Koordinazioa eta lankidetza**<br><br>**(.../...)** | ▪ Honako batzorde hauetan parte hartzen du Osasun Sailak: **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordean**, **Emakundeko Zuzendaritza Batzordean** eta **Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko II. akordioaren Jarraipen Batzordean**.<br><br>**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak**, Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu batzordeburu eta Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida batzordeburuorde dituenak, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuorde Fátima Ansotegi Elordi du Osasun Sailaren ordezkari. Batzorde hori da, hain zuzen, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko Eusko Jaurlaritzaren jarduerak koordinatzen dituen organoa. Abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuaren bidez sortu zen Sailarteko Batzordeko kideei ezinbesteko laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea helburu hartuta, **Sailarteko Talde Teknikoa** (STT) ere sortu zen. Talde horretan parte hartzen du, hain zuzen, Saileko berdintasun-teknikariak.<br><br>▪ Eusko Jaurlaritzaren eremuan berdintasunerako politikak eraginkortasunez aplikatzea bultzatzeko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak, 2008ko martxoaren 12an egindako bilkuran, **Sailetako Talde Teknikoak** (STT) sortzea erabaki zuen. Talde horien helburua da batetik, berdintasunaren alorreko planak eta programak betez, zuzendaritzetan, eta kasuan kasu, sailei atxikitako edo lotutako organismo autonomo, sozietate eta erakundeetan ekintzak gauzatu behar dituzten pertsonak koordinatzea; eta bestetik, informazioa biltzea eta berdintasun-politikak garatzeko prozesuko fase guztietan laguntzea.<br><br>Osasun Sailak berdintasunaren aldeko Saileko Talde Teknikoa du. 2014ko apirilaren 8an eratu zen. eta talde horretan parte-hartzaile dira Zuzendaritza guztiak, Osakidetza, Bioef eta Osatek. Talde teknikoa sortu aurretik ere, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, jasotako aginduak betetze aldera, lanean aritutakoa da berdintasun-teknikaria Zuzendaritza bakoitzeko eta Osasun Sailaren mende edo berari atxikita dauden erakundeetako teknikariekin. Saileko Talde Teknikoak jarduera hauek egiten ditu:<br><br>- Taldeko bilerak;<br>- Aldebiko bilerak (alde batetik, zuzendaritza edo erakundea, eta bestetik, berdintasun-teknikaria) berdintasunaren alorreko jarduerak definitzeko, bultzatzeko eta egikaritzeko;<br>- Proposamenak, dokumentazioa, ikastaroak, jardunaldiak, gidak, materialak eta abar posta elektronikoz trukatzea.<br>- Diagnostikoak, ebaluazioak eta plangintzetarako proposamenak egitea. |

| | |
|---|---|
| (…/…)<br><br>**IV. programa:**<br><br>**Koordinazioa eta lankidetza** | Urte hauetan lehentasuna eman zaie aldebiko bilerei, izan ere eraginkorragoak dira. Hala ere, plangintza aldi berriari begira, Osasun Saileko talde teknikoak, une eta kasua bakoitzean beharrezkoak diren aldebiko bilerei kalterik egin gabe, 2008ko Sail arteko Batzordean sailetako talde teknikoei eman zitzaizkien egitekoei berariazko bultzada emango zaie.<br><br>Halaber, azpimarratzekoa da Osakidetzak berdintasunaren alorreko barne-koordinaziorako talde bat sortu zuela.<br><br>▪ Sailak parte hartzen du, halaber, **Informazio Sistemen Lantaldean**. Lantalde teknikoa da, Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko II. akordioaren barruan diharduena, garai bateko Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokian planteatutako helburuak garatze aldera.<br><br>▪ **Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak** (Bizkaiko Foru Aldundia) bi arlo berri txertatu zituen bere lan-prozesuan: Hezkuntza eta Osasuna. Beraz, Osasun Sailak modu aktiboan lan egiten du adierazleen lantaldean.<br><br>▪ **Indarkeriaren aurkako II. akordioari lotutako Segimendu Batzordea eta Erakunde Arteko Talde Teknikoa**. 2001eko urrian, Emakundek sustatuta, **Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko akordioa** sinatu zuten Euskadin, 2009ko otsailaren 3an, gaiari lotuta egon dauden goreneko erakundeek (Eusko Jaurlaritza, Emakunde, 3 Foru Aldundiak, Euskal Autonomia Erkidekoko Fiskaltza Nagusia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, EUDEL, Abokatutzaren Euskal Kontseilua eta Euskal kontseilu Medikoa). Akordio horren xedea honako hau izan zen: etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntza ematen zuten erakunde publikoen arteko koordinazioa hobetzea, eta Euskal Autonomia Erkidego osoan jardun ildo homogeneoak ezartzea, biktimei laguntza hobea ematearren. Era berean, Akordioan jasotako konpromisoen betetzeari bultzada eman eta betetze horren jarraipena egite aldera, bi organo sortu ziren: **Segimendu Batzordea** eta **Erakunde Arteko Talde Teknikoa**. Lehenengoa maila politikoa duten ordezkariez osatuta dago; bigarrena, berriz, Akordioa sinatu zuten erakundeetako ordezkari teknikoz. 2009ko martxoan, esandako akordioa eguneratu egin zen, beti ere, araubide berriarekin bat etor zedin. Une horretan izen berria hartu zuen Akordioak: **Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa**. Bigarren Akordio honek aurretiaz osatutako Segimendu Batzordeari eta Talde Teknikoari eutsi zien. Osasun Saila bi batzordeotako kide da. |

**V. programa:**

**Partaidetza eta intzidentzia**

Emakumeek eta gizonek kide anitzeko zuzendaritza-organoetan duten ordezkaritza orekatuari dagokionez, nabarmendu behar da aurreko legealdian handitu egin zela sexuaren araberako ordezkaritza orekatua duten organoen kopurua.

| | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|
| **Kide anitzeko zuzendaritza-organoen kopurua** | 6 | 10 | 10 | 21 |
| **Ordezkaritza orekatua dutenen kopurua** (inongo kasutan, ordezkaritza hori ez da % 40 baino txikiagoa) | 1 | 4 | 4 | 10 |
| **Ordezkaritza orekatua dutenen portzentajea** (inongo kasutan, ordezkaritza hori ez da % 40 baino txikiagoa) | % 16,6 | % 40,0 | % 40,0 | % 47,6 |

### 4.1.2.- Berdintasun-alorrean esku hartzeko ardatzak

Honatx, Osasun Sailaren eskumen-eremuen arabera bereizita, aurreko legealdiko konturik nabarmenenak:

**Osasun publikoa, elikadura-higienea eta zaintza epidemiologikoa**

- **Gisa papilomaren birusaren kontrako txertoa.**

| Ikasturtea | Txertatu diren neskak | Txertoa hartu beharreko biztanleak | Estaldura % |
|---|---|---|---|
| 2014-2015 | 8.425 | 9.200 | 91,58 |
| 2015-2016 | 8.422 | 9.186 | 91,68 |
| 2016-2017 | 9.152 | 9.804 | 93,35 |
| 2017-2018* | 9.048 | 9.927 | 91,15 |

*Behin-behineko datuak

- **Emakumeen osasunarekin lotutako adierazleak Euskadiko 2013-2020 Osasun Planean txertatzea.** http://www.euskadi.eus/contenidos/plan_gubernamental/xleg_plangub_13/eu_plang_13/adjuntos/osasun_plana_2013_2020-web%2020_03_2018.pdf. Osasun Planak Euskadin hurrengo zazpi urteetan garatu beharreko osasun-politikak zehazten ditu. Plana ibilbide-orria da eta, aldi berean, bide-erakusle. Urtero bere betetze mailaren berri ematen du Osasun Sailak. Kontua emateko orduan, Osasun Sailak gainontzeko Sailekin, Foru Aldundiekin eta Udalekin partekatzen dituen egitasmoak gogoan hartzen ditu, izan ere osasuna guztion zeregina da.

- **Sexuaren araberako zenbait aldagairen ustiaketa Euskadiko 2013-2020 Osasun Planarekin lotuta (2014, 2015, 2016 eta 2017).** http://www.euskadi.eus/web01-s2osa/eu/contenidos/plan_gubernamental/xleg_plangub_13/eu_plang_13/index.shtml

- **Haurdunaldian, erditzean eta erdiberri aroan laguntzeko gida**ren 22.000 ale editatu ziren urtean, **edoskitzaroari buruzko gida**ren 10.000 ale eta **haurdunaren kartilla**ren 22.000 ale.

| | |
|---|---|
| **Osasun-plangintza eta -antolamendua**<br><br>**(…/…)** | ▪ **EAEko Osasun Inkesta (EAEOI)**. Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-arloko informazio-sistemaren funtsezko atal bat da. EAEko osasun-arloko politikei buruzko erabakiak hartzeko datu- eta informazio-iturria da. EAEko Osasun Inkestak informazioa eskaintzen du osasunaren egoeraz eta eboluzioaz, osasun-determinatzaileez eta osasun-zerbitzuen erabileraz, erkidegoaren ikuspuntutik. Gainera, EAEko Osasun Inkesta da osasun-ekitatea baloratzeko informazio-iturri nagusia, bai osasun-mailari bai osasun-arretari dagokienez. Ekitatea Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen oinarrizko printzipioetako bat da, eta egun indarrean dagoen 2013-2020 aldirako Osasun Planaren elementu nagusietakoa.<br><br>▪ **EAEko Osasun Inkesta 2013 (EAEOI13).** 2013ko Osasun Inkesta (EAEOI13) Euskal Autonomia Erkidegoan egin den seigarrena da. Lehenengo inkesta 1986an egin zen, eta 1992tik aurrera bost urtean behin egin izan dira. Inkesta generoaren ikuspuntutik aztertu zen. Ondorioz, zenbait alderdiren txostenak argitaratu ziren: zainketa informala Euskadin, adin txikikoen osasun egoera eta desberdintasunak. Ikus inkesta horri buruzko informazioa honako helbide honetan: http://www.euskadi.eus/informazioa/osasun-inkesta-2013-aurkezpena/web01-a3osag13/eu/.<br><br>▪ **EAEko Osasun Inkesta 2018 (EAEOI18).** Galdetegia eguneratu egin zen eta item bakoitzeko galderak generoaren arabera bereiztu ziren. Ikus edukiak eta emaitzak honako honetan: http://www.euskadi.eus/informazioa/osasun-inkesta-2017-2018/web01-a3osag17/eu/<br><br>▪ **Haurdunaldiaren Borondatezko Etendura (HBE).** 2017an txostena idatzi zen. Txosten horren asmoa honako hau izan zen: Euskadin bizi diren eta 2017an HBE bat egin zuten emakumeei buruzko datuak eta Euskadiko zein hiru lurralde historikoetako abortu-tasa deskribatzea. Era berean, Euskadin bizi arren atzerrian jaio eta 2017an haurdunaldiaren borondatezko etendura izan zuten emakumeen berri ere ematen da. Ikus txostena http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/interrupcion_embarazo/es_def/adjuntos/informe-ive-2017.pdf.<br>Ikus, nahi izanez gero, 2015 eta 2917koak: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/interrupcion_embarazo/es_def/adjuntos/informe-ive-2016.pdf; http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/interrupcion_embarazo/es_def/adjuntos/2015.pdf |

(…/…)

**Osasun-plangintza eta -antolamendua**

(…/…)

- **Osasun arloko profesionalei zuzendutako etengabeko prestakuntzan emakumeen kontrako indarkeriari buruz txertatutako prestakuntza-ikastaroak**

| Urtea | Izenburua | Ordu kopurua | Ekitaldi kopurua | Bertaratuak |
|---|---|---|---|---|
| **2015** | Genero indarkeriaren kontra indarrak batuz izeneko jardunaldia | 3,25 | 1 | 80 |
| | Genero-indarkeriaren susmoa dagoenean nola galdetu behar den. | 4 | 2 | 20 |
| | Genero-indarkeria: zenbait kasu praktikoren azterketa | 4 | 2 | 15 |
| | Osasun esparruko genero-indarkerian eskua-hartzea | 9 | 3 | 40 |
| | Genero-indarkeriari buruzko oinarrizko ikastaroa osasun arloko profesionalei zuzendutakoa (on line) | 35 | 2 | 250 |
| **2016** | Indarkeria sinbolikoa emakumearen gorputzean. Indarkeria horrek osasunean duen eragina. | 19,5 | 1 | 20 |
| | Nerabeei egin dakiekeen genero-indarkeriari aurre hartzea. Harremanak era positiboak landuz. | 8 | 1 | 25 |
| | Genero-indarkeriari buruzko oinarrizko ikastaroa osasun arloko profesionalei zuzendutakoa (on line) | 35 | 2 | 250 |
| **2017** | IV. Berdintasunerako jardunaldia: Osasun mentala eta genero-indarkeria. | 5,45 | 1 | 72 |
| | Osakidetzan, genero-indarkeriari buruzko VI. jardunaldia. Gogoetarako ahotsak. | 6,3 | 1 | 73 |

(…/…)

**Osasun-plangintza eta -antolamendua**

- **Prestakuntza berezitua: BAME (barneko mediku egoiliarra); BAEE (barneko erizain egoiliarra), BAPE (barneko psikologo egoiliarra).** Familia-medikuntzako eta familia- eta komunitate-erizaintzako profesionalekin tailerra egin zen. Honako hau hain zuzen ere: “Genero-indarkeriaren kontuetan osasun-esparrutik esku hartzea”. Tailerra 5 ordukoa izan zen. Barneko psikologo egoiliarren kasuan, hainbat saio kliniko antolatu da. Ez dute esandako tailerrean parte hartu.

| Urtea | Lurraldea | Tailer kopurua | Prestakuntza jaso duten taldeak |
|---|---|---|---|
| **2015** | Gipuzkoa | 1 | BAME-R3 |
| | Bizkaia | 3 | BAME-R3 |
| | | 1 | BAEE-R2 |
| | Araba | 1 | BAME-R4 |
| **2016** | Gipuzkoa | 1 | BAME-R3 |
| | | 1 | BAEE-R2 |
| | Araba | 1 | BAME-R4 |
| | | 1 | BAEE-R2 |
| **2017** | Bizkaia | 1 | BAME-R3 |
| | | 1 | BAEE-R2 |

**Adikzioak**

(…/…)

- **Emakumeek, drogei lotutako arazoei dagokienez, dituzten ezaugarri bereizgarriak zeintzuk diren ezagutu ahal izateko ikerketak**

| Urtea | Ikerketa |
|---|---|
| **2017** | - Droga-Menpekotasunen Deustuko Institutua. “Investigación complementaria cualitativa sobre violencia de género e interpersonal en adolescentes en espacios de ocio en los que se produce consumo de drogas” izeneko txostena.<br>- Droga-Menpekotasunen Deustuko Institutua: Droga hartzeari utzi ondoren berriro hasteari buruzko eskuliburuaren idazketa, genero ikuspegitik aztertuta.<br>- Droga-kontsumoen joerak_/ Tendencias en consumo de drogas. Drogomedia Monografikoak, n. 5.Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, 2017.<br>- Fundación Atenea – Kriminologiaren Euskal Institutua (KREI). Alkohol-kontsumoa eta genero-indarkeria. Drogen esparruko, arlo juridikoko eta gizarte alorreko profesionalen ikuspegia. |

| | |
|---|---|
| **2016** | - "*Gautxoriak*" izeneko ikerketari hasiera ematea (Droga-Menpekotasunen Deustuko Institutua). Ikerketa hori aipatutako Institutuaren eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren artean sinatutako lankidetza-hitzarmenean kokatuta dago.<br>- *Consumo de alcohol y violencia de género. Perspectiva de los y las profesionales del ámbito de las drogodependencias, jurídico y social* izeneko liburua, Kriminologiaren Euskal Institutuak Domingo Comas Arnaurekin batera paratutakoa. |
| **2015** | Droga-Menpekotasunen Deustuko Institutua: *Ideología de género, relación filio-parental y violencia en las relaciones de pareja en jóvenes adolescentes* izenekoa. |
| **2014** | - Droga-Menpekotasunen Deustuko Institutua: *Género, vulnerabilidad y prácticas de riesgo en el consumo de alcohol en menores* izenekoa.<br>- Droga-Menpekotasunen Deustuko Institutua: *Violencia de noviazgo adolescente: relación con factores de ajuste escolar, comunicación familiar, consumo de drogas e ideología de género* izenekoa. |

**(…/…)**

**Adikzioak**

- Bazterkeria-egoeran zeuden emakume droga-mendekoen premia zehatzak izan ziren kontuan, eta horientzako lekuak gorde ziren bazterkeria altuko baliabideetan (% 20 dira gizonezkoekin alderatuta, baina arrisku gehiago jasaten dituzte gaua kanpoan igarotzen dutenean).

- «Kerik gabeko gazteak» prebentzio-programan generoarekin lotutako modulu bat txertatu zen. Pixkanaka, tabakoaren kontsumoa behera egiten ari da 15 eta 34 urte arteko pertsonen taldean. 2000. urtean, % 42 emakume erretzaileak ziren, gizonak baino % 7 gehiago. 2006an eta 2012an, gizon erretzaileen kopurua emakumeena baino handiagoa izan zen berriz ere.

- Drogen kontsumoari buruzko «Drogak EAEn» inkestan, «Drogen kontsumoa eta generoa» atala gehitu zen. Kalamuaren kontsumoa behera egiten ari da 15 eta 34 urte arteko pertsonen taldean, bi sexuetan. Kalamua kontsumitzen duten mutilen kopurua handiagoa da oraindik ere. Beste droga batzuen kontsumoari dagokionez (anfetaminak, MDMA / estasia, LSD / azidoa, kokaina eta heroina), eta adin-talde bera kontuan hartuta, kontsumoak behera egin du 2006tik 2012ra, eta oraindik ere mutilak dira gehien kontsumitzen dutenak. 35 eta 74 urte arteko pertsonen taldeari dagokionez, gizonek gehiago kontsumitu dituzte kalamua eta beste droga batzuk, baina horien kontsumoak behera egin du 2006tik 2012ra. Zaintza-faktoreak eta mendekotasunak saihesteko jarrera eta ohitura osasungarriak sustatzeko jarduerak eta prebentzio-programa unibertsalak sustatzen dira Osasun Sailaren aldetik, betiere genero-ikuspegia kontuan hartuta.

| | |
|---|---|
| **Farmazia-antolamendua** | ▪ Ekintza gehienak herritar orori zuzendu zitzaizkion. Halere, Osasun Sailak ahalegina egin zuen, herritarrei bideratutako sendagaien informazio-materialetan (fitxak eta bideoak), lan-eremuko estereotipoak finkatzen dituen material grafikorik ez erabiltzeko. Era berean, ahaleginak egin ziren gizonak inplikatuago ager zitezen beren osasunarekin eta senideen zaintzarekin. Gaur egun, konpromiso hori mantentzen da Farmazia Zuzendaritzaren aldetik.<br><br>▪ Sendagaiei buruzko informazio-fitxa bat (i-botika fitxa) egin zen urtean, herritarrei bideratua eta emakumeen osasun-gaiei buruzkoa:<br><br>- 2014: «Pilula hartzea ahaztu zait! Eta orain, zer?» / «Biharamuneko pilula»<br>- 2015: «Eraztun baginala: zalantzak argitzen»<br>- 2016: «Onddoek eragindako infekzioei aurre egiteko baginatik barrenako botikak» |
| **Aseguramendu eta kontratazio sanitarioa** | ▪ 2016an, «Emakumeen genitalen mutilazioa. Euskadiko Osasun Sisteman gomendatutako jardunen gidaliburua» argitaratu zen. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/mutilacion_genital_femenina/eu_def/adjuntos/emakumeen-genitalen-mutilazioa-gida.pdf. 2016an, Osasun Sailak Berdintasunerako Foroaren barnean antolatutako jardunaldi batean jorratu zuen gaia. Jardunaldi hori Saileko eta Osakidetzako langileei zuzenduta zegoen. (89 pertsona: 84 emakume eta 5 gizon) (2016ko urriaren 19)<br><br>▪ 2016an, «Transexualitate-egoeran daudenei arreta integrala emateko Gida. Hezkuntza, gizarte eta osasunaren esparruetatik gomendatutako jardunak» izeneko gida egin eta argitaratu zen.http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/guia_transexualidad/eu_def/adjuntos/guia_transexuales_eu.pdf<br><br>▪ Sexuaren eta adinaren aldagaiak txertatu ziren, kalitatezko konpromiso gisa, Programa Kontratuaren estrategietan: kolon-ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarra, Miokardio Infartu Akituaren (MIA) prozesua, Diabetes Mellitus (DM) prozesua, alta hartzeko esku-hartze soziala eta abar.<br><br>▪ «EAEko osasun-arloko profesionalek genero-indarkeriaren aurrean izan beharreko jardunbidearen gida» berria berrikusten eta egiten hasi zen. 2017. urtean zehar, Larrialdietan artatutako kasu kopurua 297 izan zen (2016an baino hiru kasu gutxiago). Lehen Mailako Arretan, detektatutako kasuak % 8 murriztu ziren: 2016: 435 kasu; 2017: 400 kasu. |

| | |
|---|---|
| **Ikerketa eta berrikuntza sanitarioa** | Osasun-sisteman ikertzen ari diren pertsonen % 64, emakumeak dira. Ikerlari Nagusi (IN) izenarekin ezagutzen direnen artean erdiak, gutxi gorabehera, emakumeak dira. (IN: ikerketa-talde bateko arduraduna, I+G proiektuen buru izateko gai dena). Errealitate hori I+G proiektuei zuzendutako laguntza-deialdietara eraman beharra dago. Osasun Sailak egindako I+G proiektuei zuzendutako deialdien emaitzei buruz urtero ematen den informazioak honako datu hau jasotzen du bere baitan: emakume ikerlari nagusiak buru dituzten diruz lagundutako proiektuen portzentajea. Datu hori % 40tik % 60ra aldatu da azken urteotan.<br><br>- 2015: diruz lagundutako 21 proiektuetatik 9tan emakumea da ikerlari nagusi (% 42,8)<br>- 2016: diruz lagundutako 20 proiektuetatik 12tan emakumea da ikerlari nagusi (% 60 %).<br>- 2017: diruz lagundutako 48 proiektuetatik 29tan emakumea da ikerlari nagusi (% 60,4 %).<br><br>Era berean, deialdiak genero-ikuspegia kontuan hartzen du proiektuen balorazioa egiteko orduan. Ikuspegi hori jaso beharra ikerketa biomedikoan ikusitako gabeziak aginduta etorri da. |

## 4.2.- Helburu estrategikoak

Hona hemen, berdintasun-kontuetan aurrera egin ahal izateko Osasun Sailak begiz jotako 19 helburu estrategikoak. Horietako bakoitzak honako informazio hau darama ondoan:

a) Arduraduna

b) Kronograma (2018-2021)

c) Helburuak, XI. Agintaldirako emandako gobernu-proposameneko zutabeetakoren batekin duen korrespondentzia edo bateragarritasuna.

d) Helburuak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. planean begiz jotako aspektu hauekin duen korrespondentzia edo bateragarritasuna:

- Gobernu ona (I., II., III. eta IV. programak)
- Berdintasun kontuetan esku-hartzeko ardatzak (1., 2. eta 3. ardatzak): 1. ardatza (1. eta 2. programak); 2. ardatza (3., 4. eta 5. programak) eta 3. ardatza (6., 7. eta 8. programak).

| OSASUN SAILAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK | Arduraduna | Kronograma | | | | Bateragarritasuna gobernu-proposamenarekin ((XI. Legealdia) | | | | Bateragarritasuna VII. planarekin | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | | | GOBERNU ONA | | | | | 1. ardatza | | 2. ardatza | | | 3. ardatza | | |
| | | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 1. ZUTABEA | 2. ZUTABEA | 3. ZUTABEA | 4. ZUTABEA | I. programa | II. programa | III. programa | IV. programa | V. programa | 1. programa | 2. programa | 3. programa | 4. programa | 5. programa | 6. programa | 7. programa | 8. programa |
| **1.- Berdintasun-politikak garatzeko Osasun Sailaren aurrekontua handitzea.** | Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza | X | X | X | X | | | | | ☒ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **2.- Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.** | Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza | | X | | | | | | | | ☐ | x | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

